

Bizkaiko Tutoretza Erakundea
Instituto Tutelar de Bizkaia

Bizkaiko Tutoretza Erakundea (BTE) 2000ko urriaren 31ko 9/2000 Foru Arauaren bidez eratu zen.

BTE Gizarte Ekintza Sailari atxikitutako Irabazi-asmorik gabeko Foru Enpresa-Erakunde Publikoak da eta honako eskumenok bereganatu ditu:

- a) Adin nagusikoak diren baina jarduteko gaitasuna ebazpen judizial bidez aldatuta daukaten pertsonen gaineko tutoretza eta kuradoretza eginkizun saihestezinak, horiek Bizkaiko Lurralde Historikoan biziz gero, Kode Zibilean ezarritakoaren arabera, epai agintari eskudunak behin betiko ebazpen irmoaren bidez ezartzen duenean, baldin eta epaileak onarturiko bazterketa badago, Lege Testu horretan ezarritako lehentasun ordenaren arabera aipaturiko erakundearen barruan sartzen ez diren pertsona fisikoei edo juridikoei dagokienez.

Horrelako funtzioak epailearen aginduz ezarritako onurabideen markoan garatuko dira. Egiteko hori epai-agintaritzaren eskudunak hala dekretatzen duenean irautuko da, halaber.

- b) Jarduteko gaitasuna aldatzeko prozesu judiziala hasita daukaten eta Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren adin nagusikoen defentsa judiziala bere gain hartzea hala behar denean, eta, pertsona horiek babesik gabe badaude, eurak eta euren ondarea defendatu eta babesteko behin-behineko neurrietan agintaritzaren judizialak zehazten dituen eginkizun guztiak betetzea.
- c) Jarduteko gaitasuna ebazpen judizial bidez aldatuta daukaten eta Bizkaiko Tutoretza Erakundearen tutoretzapean dauden pertsona helduak gizarteratu eta normalizatzeko ekintzak sustatu eta egitea, pertsona horiei

El Instituto Tutelar de Bizkaia (ITB), se constituyó por Norma Foral 9/2000 de 31 de octubre de 2000.

El ITB, en la actualidad Ente Público Empresarial Foral adscrito al Departamento de Acción Social, sin ánimo de lucro, asume las siguientes competencias:

- a) El ejercicio inexcusable de la tutela y curatela de las personas mayores de edad cuya capacidad de obrar se ha visto modificada judicialmente, residentes en el Territorio Histórico de Bizkaia, en los términos fijados por el Código Civil, cuando así lo determine y le sea conferida por la autoridad judicial competente por resolución firme y definitiva, siempre y en todo caso en el que medie exclusión judicialmente admitida de aquellas otras personas físicas o jurídicas, que según el orden de prelación establecido en el citado Texto Legal no concurrieren al desempeño de los expresados institutos jurídicos.

Tales funciones se desarrollarán en el marco de las prerrogativas impuestas por mandato judicial, extinguiéndose o expirando dicho cometido cuando así fuere decretado, de igual manera, por la autoridad judicial competente.

- b) La asunción, en su caso, de la Defensa Judicial de las personas mayores de edad residentes en el Territorio Histórico de Bizkaia sobre las que se haya iniciado un proceso judicial de modificación de la capacidad de obrar, así como el ejercicio de cuantas funciones determine la autoridad judicial en medidas provisionales de defensa y protección personal y patrimonial de dichas personas cuando se encuentren en situación de desamparo.
- c) El fomento y realización de acciones encaminadas a la integración y normalización de las personas adultas cuya capacidad de obrar haya sido modificada judicialmente y cuya Tutela se ejerza por el Instituto Tutelar de



Bizkaiko Tutoretza Erakundea
Instituto Tutelar de Bizkaia

- gizarte baliabideak, arreta pertsonala eta zainketak eskaintzea, birgaitzen edo suspertzen laguntzea eta maitasuna ematea, eta Kode Zibileko xedapenen arabera tutoretzari eta kuradoretzari lotuta dauden kudeaketa eta osaketa eginkizunak betetzea pertsonari zein ondareari begira.
- d) Tutoretzapeko pertsonaren ondasunak administratzea, haren onerako jardunez, zuhurtasunaren eta ondasunok zaindu eta hobetzearen printzipioei jarraituz, Kode Zibilean horri buruz dauden arauetan eta aplikatu beharreko gainerako lege-xedapenetan adierazten den moduan.
- e) Jarduteko gaitasuna ebazpen judizial bidez aldatuta daukaten pertsona helduen jarauntsien likidazioa tramitatzea eta haien ondasun eta eskubideak administratzea
- f) Babesik gabe eta Bizkaiko Foru Aldundiaren tutoretzapean dauden adingabeen ondasunak administratzea, haien onerako jardunez, zuhurtasunaren eta ondasunok zaindu eta hobetzearen printzipioei jarraituz, Kode Zibilean horri buruz dauden arauetan eta aplikatu beharreko gainerako lege-xedapenetan adierazten den moduan.
- g) Bizkaiko Foru Aldundiaren tutoretzapean dauden adingabe horien jarauntsien likidazioa tramitatzea eta ondasun eta eskubideak administratzea.
- h) Gurasoei, senideei eta beste tutore batzuei informazioa, orientazioa, aholkularitza eta laguntza ematea.
- Bizkaia, facilitando recursos sociales, la atención personal, su cuidado, rehabilitación o recuperación y el afecto necesario, así como las funciones de gestión y complementación en el orden personal y patrimonial que fijan las disposiciones que al efecto emanan del Código Civil en el ejercicio de la tutela o curatela.
- d) La administración de los bienes de la persona Tutelada, actuando en su beneficio, bajo los principios de prudencia, conservación y mejora de aquellos, con arreglo a las previsiones contenidas en el Código Civil al respecto, y a cualesquiera otras Disposiciones Legales que fueren de aplicación.
- e) La tramitación de la liquidación de las herencias y la administración de los bienes y derechos de las mismas de las personas adultas cuya capacidad de obrar haya sido modificada judicialmente.
- f) La administración de los bienes de las personas menores de edad desamparadas cuya Tutela ejerce la Diputación Foral de Bizkaia actuando en su beneficio bajo los principios de prudencia, conservación y mejora de aquellos, con arreglo a las previsiones contenidas en el Código Civil al respecto y a cualesquiera otras Disposiciones Legales que fueren de aplicación.
- g) La tramitación de la liquidación de las herencias y la administración de los bienes y derechos de las mismas de las personas menores de edad cuya Tutela ejerce la Diputación Foral de Bizkaia.
- h) Información, orientación, asesoramiento y asistencia a padres, madres, familiares y otros tutores y tutoras.



Bizkaiko Tutoretza Erakundea
Instituto Tutelar de Bizkaia

Erakunde publikoa izanda, Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrekontu orokorretan esleitzen zaizkigun partidak, transferentziak eta diru-laguntzak jasotzen ditugu funtsean, baina bestelako finantzaketa-iturriak izan ditzakegu, hala nola, borondatezko ekarpenak, ondasun-etekinak, legatuak... Nolanahi ere, Bizkaiko Foru Aldundiaren azken finantza kontrolaren eta esku-harmenaren pean egon beharko du beti.

En base al carácter de ente público del Instituto Tutelar de Bizkaia, éste se nutre fundamentalmente de las partidas que a tal fin se le asignen en los presupuestos generales de la Diputación Foral de Bizkaia, transferencias y subvenciones, no renunciando por otro lado a otras posibles fuentes de financiación como aportaciones voluntarias, rendimientos de bienes, legados... y en cualquier caso bajo control financiero último de la intervención de la Diputación Foral de Bizkaia.

Erakundearen Egitura

Estructura Organizativa

Presidentea

Presidente/a

Administrazio Kontseilua

Consejo de Administración.

Presidenteordea

Vicepresidente/a.

Zuzendari-Kudeatzailea

Director/a Gerente.

Arlo Juridikoa – Legelari-aholkularia

Area Jurídica – Letrada/o Asesor/a.

Gizarte Arloa – Gizarte-langilea

Area Social – Trabajadora/or Sociales.

Ekonomi eta Administrazio Arloa-Administrazioko arduraduna eta administrariak.

Area Económico Administrativa-Responsable de Administración y Personal de Administración.

Espedienteen bilakaera, 2017-2018

Evolución de los expedientes 2017-2018

2017ko abenduaren 31n espedienteen banaketa honako hau zen:

A 31 de diciembre de 2017 la distribución de expedientes era la siguiente:

- 1.- Kargua egoitza judizialean onartuta duten Tutoretza eta Kuratela espedienteak: 1494
- 2.- Defentsa Judizialeko espedienteak: 161
- 3.- Adin txikikoen Ondasunen Administrazioko espedienteak: 91
- 4.- Ondasunen administraziorako zuhurtasun-espedienteak edo Behin-BehinekoTutoretza: 40

- 1.- Expedientes de Tutela y curatela con aceptación del cargo en sede judicial: 1494
- 2.- Expedientes de Defensa Judicial : 161
- 3.- Expedientes de Administración de Bienes de menores: 91
- 4.- Expedientes de medida cautelar de administrador de bienes o tutela provisional: 40



**Bizkaiko Tutoretza Erakundea
Instituto Tutelar de Bizkaia**

2018ko irailean aktibo egon diren espedienteak hauek dira:

- 1.- Kargua egoitza judizialean onartuta duten Tutoretza eta Kuratela espedienteak: 1.523
- 2.- Defentsa Judizialeko espedienteak: 181
- 3.- Adin txikikoen Ondasunen Administrazioako espedienteak: 93
- 4.- Ondasunen administrazioarako zuhurtasun-espedienteak edo behin-behineko tutoretza-espedienteak: 57

2019. urterako aurreikuspenak

Datozen urteetarako aurreikuspenen arabera, Bizkaiko Tutoretza Erakundeak gaitasun egoera aldatzeko prozedurek eragindako kargu judizial gero eta gehiago bereganatuko dituela nabarmendu behar da. Horrez gainera, orain arte egon direnak baino gehiago egongo direla uste da.

Defentsa Judizialen Espedienteen, Adin Txikikoen Ondasunen Administrazioaren eta kautela-neurrien kasuan, igoera moderatua espero da, 2018. urteko zenbatekoekin alderatuta.

Hornidura gastuak

Hornidura gastuen barruan, Bizkaiko Tutoretza Institutua sortu duen Foru Arauak ezarritako helburuak betetzeko partidak jasotzen dira; esate baterako, laguntza zerbitzuak, premiazko laguntzako kanpoko zerbitzuak, tutoretzaren gizarte-laguntzako programak, etab.

El número de expedientes activos a mediados de septiembre de 2018 son :

- 1.- Expedientes de Tutela y curatela con aceptación del cargo en sede judicial: 1.523
- 2.- Expedientes de Defensa Judicial : 181
- 3.- Expedientes de Administración de Bienes de menores: 93
- 4.- Expedientes de medida cautelar de administración de bienes o Tutela provisional: 57

Previsiones año 2019

Destacar que las previsiones para los próximos años vaticinan un incremento constante en la asunción de cargos judiciales derivados de procedimientos de modificación de la capacidad por parte del Instituto Tutelar de Bizkaia, estimándose que los mismos serán mayores que los habidos hasta la fecha.

En el caso de los Expedientes de Defensas Judiciales , Administración de Bienes de Menores y medidas cautelares se estima que el incremento será moderado con respecto a las cifras del año 2018.

Gastos de Aprovisionamiento

Dentro de los gastos de aprovisionamiento se incluyen partidas encaminadas a atender las finalidades que marca la Norma Foral de creación del Instituto Tutelar de Bizkaia tales como, Servicios de acompañamiento, Servicios externos de atención de urgencia, y programas de apoyo social a Tutelados, etc.



Bizkaiko Tutoretza Erakundea
Instituto Tutelar de Bizkaia

Kanpoko zerbitzuak

Kanpoko zerbitzuen kapituluan, funtsean, honako gastu hauek sartzen dira:

- Abokatuen eta prokuradoreen Zerbitzu Juridikoaren gastuak, egindako tutoretzen eta Bizkaiko Tutoretza Institutuari esleituriko Defentsa Judizialako laguntzaren beharrezko lege-laguntza eskaintzeko.
- Alokairu, seguritate-zaintza eta mezulari gastuak.
- Langileen bidaia-gastuak, Bizkaiko Tutoretza Institutuari esleituriko kasuen laguntzarako eta jarraipenerako egiten dituzten irteeretan.

Erakundearen egoera eta bilakaera

Bizkaiko Tutoretza Institutuaren bilakaerari eta etorkizunari buruzko hausnarketa egiteko, sozietatearen azterketa egin behar da Bizkaiko Lurralde Historikoaren eremuan; maila honetan, demografia, osasun eta gizarte mailako aldaketak egon dira, eta horiek zenbait egoeratan islatu dira; aipagarria da bizi-itxaropenak izandako gorakada ikusgarria; izan ere, biztanleriaren zahartzea gizarte mailako arrakasta handia da, baina batzuetan, horrekin batera, pertsona batzuen gaitasun fisikoak eta psikikoak murriztu egiten dira, eta horrela, handitu egiten da mendekotasun egoeran dauden pertsonen kopurua; beraz, horien beharrianak betetzeko baliabide gehiago behar da.

Pertsona bakarreko etxe gero eta gehiago dagoela, familiak kide gutxiagokoak direla, familia-ereduan aldaketak egon direla eta horien barreiadura geografikoa handiagoa dela aintzat hartuta, tutoretzaren arloan gabiltzan erakunde guztiok gero eta tutoretza-kuratela gehiago hartu behar ditugu.

Servicios Exteriores

Dentro del capítulo de Servicios Exteriores se incluyen como gastos principales los siguientes :

- Gastos de Servicio Jurídico de abogados y procuradores para la cobertura de la necesaria asistencia legal tanto de las tutelas ejercidas así como de la asistencia en Defensas Judiciales asignadas al Instituto Tutelar de Bizkaia.
- Gastos de alquileres, vigilancia y seguridad, mensajería.
- Gastos de desplazamiento de los y las trabajadores/as en las distintas salidas para atención y seguimiento de los diferentes casos asignados al Instituto Tutelar de Bizkaia.

Situación y Evolución de la entidad

Para realizar una reflexión acerca de la evolución y el futuro del Instituto Tutelar de Bizkaia, hay que realizar un análisis de la Sociedad en el ámbito del Territorio histórico de Bizkaia, a este nivel se han producido una serie de cambios demográficos, médicos y sociales que tienen su reflejo en una serie de situaciones que se vienen produciendo, destacando el aumento espectacular de la esperanza de vida, el envejecimiento de la población representa un éxito social, pero esto a veces, lleva aparejado que muchas personas vean disminuidas sus facultades tanto físicas como psíquicas, haciendo aumentar el número de personas en situación de dependencia, requiriendo mayores recursos para satisfacer sus necesidades.

Teniendo en cuenta también la existencia de cada vez más hogares unipersonales, menos familias extensas, cambios en el modelo de familia y la mayor dispersión geográfica de las mismas, nos aboca a todas las instituciones que nos dedicamos al ejercicio de la tutela a asumir cada vez mayor número de tutelas-curatelas.



Bizkaiko Tutoretza Erakundea
Instituto Tutelar de Bizkaia

Zorrotz jokatzuz, eskatu behar dugu Kode Zibilak markaturiko lehentasun ordena betetzeko eta geure lanak tutoretza sistemaren bermea izateko, hau da, salbuespena izan behar dugu eta ez araua; izan ere, bestela, gure panorama gehiegi dimentsionaturiko Tutoretza Erakunde batena izan daiteke eta horrek kalte egingo lioke tutoretzaren garapenari; hori, gainera, tutoretzapekoaren kalterako izango litzateke.

Hurrengo urteotarako, eta Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren eta mugaturiko lege-gaitasuna duten pertsonen onean, honako jarduketa lerro hauek ezarri ditugu.

- Epaileak eta fiskalak jabeaz egin behar dira, Kode Zibilak ezarritako lehentasun ordenari dagokionez, tutorearen kargua onartzearen aldetik; ordena hori betearazita, erantzuna emango zaio Bizkaiko Tutoretza Institutua sortzean egon zen bokazioari, eta bokazio hori, izatez ere, jarduketa osagarria da, familia inguruko beste pertsona fisiko batzuei dagozkien jarduketan arloan, tutoretza sistema bermatzeko, bertara jo behar baita Kode Zibilaren arabera halako jarduketa garatu behar duten pertsonak ez daudelako edo inhibiturik daudelako.
- Gizarte osoari horren inguruko informazioa eman behar zaio, batez ere, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei, Buruko Osasun Zentroei eta ustezko ezintasuna duten pertsonekin lan egiten duten Organismoei, baita horien familiakoei ere; izan ere jakitera eman behar zaie geure jarduketa subsidiarioa dela familiako batzuek berenganatu behar dituzten betebeharrei dagokienez, azken bermea izan arren ez baikara lehenengo aukera.

Deberemos ser estrictos en la exigencia de que el orden de prelación que marca el Código Civil se cumpla y que nuestra labor sea la garantía última del sistema de tutela, que seamos la excepción no la norma; ya que si no es así, nuestro panorama puede ser el de una Institución Tutelar sobredimensionada, con lo cual se resentiría la calidad en el ejercicio de la tutela, y esto iría en detrimento del tutelado.

Para los próximos años, y en beneficio de las personas con capacidad legal limitada residentes en el Territorio Histórico de Bizkaia, hemos establecido las siguientes líneas de actuación:

- Concienciación a Jueces y Fiscales de que se cumpla estrictamente el orden de prelación que establece el Código Civil en cuanto a la asunción del cargo de tutor; consiguiendo que se cumpla este orden se podrá responder a la vocación con la que se creó el Instituto Tutelar de Bizkaia, que no es otra, que actuar complementariamente respecto a las actuaciones que corresponden en primer lugar a otras personas físicas del entorno familiar y como garantía última del sistema de tutela a la que acudir ante la inexistencia o inhibición de aquellas personas que conforme al Código Civil estarían obligadas a actuar en consecuencia.
- Informar en el mismo sentido a toda la Sociedad, especialmente a los Servicios Sociales de Base, Centros de Salud Mental, y Organismos que trabajan con personas presuntamente incapaces, así como a los familiares de éstos, que nuestra actuación es subsidiaria respecto a las obligaciones que deben de asumir determinados familiares, que somos la garantía última, pero jamás la primera opción.



Bizkaiko Tutoretza Erakundea
Instituto Tutelar de Bizkaia

- Epaile eta fiskalekin elkarlanerako bideak bideratu, tutoretzaren azken helburua bermearekin betetzeko, hau da, ezgaitua babesteko.
- Herri administrazioak sentsibilizatu egin behar dira, baita gizarte-organizazioak eta gizarte osoa ere, lege-gaitasun mugatua duten adineko pertsonen arazoei eta beharrezkoen buruz, horiek hobeto gizarteratzeko.
- Osasunarekiko koordinazioan jardun behar dugu; denok dakigu lotura estua dagoela tutoretzapekoen artean, batik bat buruko gaixotasuna duten eta laguntza espezializatua (psikologikoa edo psikiatrikoa) behar duten pertsonen dagokienez; gure iritzian, beharrezko prozedurak ezarri behar dira tutoretzapean ditugun pertsonen laguntza egokia bermatzeko.
- Ezintasuna edo Buruko Gaixotasuna duten pertsonen arloan lan egiten duten elkarte eta Erakundeekiko koordinazio eta lankidetzak bideak ezartzen jarraitu behar dugu.
- Bizkaiko Lurralde Historikoan zaintza eta kuratela zabaltzea eta hedatzea eta beste pertsona juridiko batzuen artean sustatzea.
- Crear cauces de colaboración con los jueces y fiscales en el ejercicio de la tutela, para cumplir con garantía el fin último de la misma, que es la protección del incapacitado.
- Sensibilizar a las administraciones públicas, a las distintas organizaciones sociales y a la sociedad en general sobre la problemática y necesidades de las personas mayores de edad con capacidad legal limitada, en orden a lograr una mayor integración en la sociedad.
- Coordinación con Sanidad, a nadie se le escapa la estrecha relación existente entre los/as tutelados/as, especialmente referido a las personas con enfermedad mental y la necesidad de atención especializada tanto psicológica como psiquiátrica; entendemos que es necesario establecer aquellos procedimientos que garanticen una atención adecuada hacia las personas que tutelamos.
- Seguir estableciendo cauces de coordinación y de colaboración con Asociaciones y Entidades que trabajan en el ámbito de las Personas con Discapacidad o con Enfermedad Mental.
- Diversificar en el Territorio Histórico de Bizkaia el ejercicio de la tutela y curatela fomentándola en otras personas jurídicas.

Bizkaiko Tutoretza Institutuak mezu hau igorri nahi dio gizarteari: denon lana da ezintasuna duten pertsonen bizitza duina eta erabatekoa garatu ahal izatea, eta gure erakundeak bermatu egingo du geure organizazioaren tutoretzapeko pertsonen gainerako hiritarren eskubide eta berme berberak dituen bizitza-proiektuak garatu ahal izatea.

Desde el Instituto Tutelar de Bizkaia pretendemos transmitir a la sociedad el mensaje de que es labor de todos y todas lograr que las personas incapacitadas puedan desarrollar una vida digna y plena, velando nuestra institución para que las personas tuteladas por nuestra organización puedan llevar adelante su proyecto de vida con los mismos derechos y garantías que el resto de la ciudadanía.



Bizkaiko Tutoretza Erakundea
Instituto Tutelar de Bizkaia

Etorkizuneko erronkak: tutoretzaren kontzeptu eta eredu berria

Desgaitasunak dituzten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioa Nueva Yorken onetsi zen 2006ko abenduaren 13an eta Estatu espainiarrak 2007ko azaroaren 23an berretsi zuen eta, ondorioz, 2008an bere antolamendu juridikokoa bihurtu zen ondore guztiekin.

Konbentzioak, eta bereziki bere 12. artikulua, ezartzen du desgaitasunak dituzten pertsonen gainerako pertsonetik aukera berdintasunean garatu behar dutela euren ahalmen juridikoa eta adierazten du Estatuak neurri egokiak hartuko dituztela pertsona desgaituei eskaintzeko nortasun juridikoa egikaritzean beharrezkoa duten babesa.

Indarrean jarri zenetik 10 urte igaro arren oraindik ere indarreko legeriak errealitate berri horri egokitu gabe jarraitzen du. Dena dela, 2018ko irailaren 21ean egin zen Ministroen Kontseiluan desgaitasunaren arloan legeria zibila eta prozesala erreformatzen duen Legearen Aurreproiektua onetsi zuen, hau da, tutoretzaren gaur egungo kontzeptua eta eredu erabat aldatuko dituena.

Erabakiak hartzerakoan amaiera emango zaio eskuordetzaren edo ordezenaren ereduari, eta ordezen erabakiak hartzerakoan laguntzea ezarriko da.

Hau da, euren ahalmen juridikoa betearazterakoan laguntzeko neurriak eskainiko zaizkie desgaitasunak dituzten pertsonen zuzenak izango diren inguruabarrekin bat, aldi berean autonomia eta burujabetasun-eskubidea sustatzeko balioko dutenak.

Retos del futuro: nuevo concepto y modelo de tutela

La Convención de Naciones Unidas sobre los Derechos de las Personas con Discapacidad aprobada en Nueva York el 13 de Diciembre de 2006 fue ratificada por el estado español el 23 de noviembre de 2007, por lo que en el año 2008 pasó a formar parte a todos los efectos de su ordenamiento jurídico.

La Convención, y en especial su artículo 12, habla de que las personas con discapacidad puedan ejercer su capacidad jurídica en igualdad de condiciones que el resto de personas y de que los estados deberán de adoptar las medidas necesarias para facilitar a las personas con discapacidad el apoyo necesario para ejercer su capacidad jurídica.

A pesar de haber transcurrido 10 años desde su entrada en vigor, todavía la legislación vigente no se ha adecuado a esa nueva realidad. Sin embargo, el Consejo de Ministros celebrado el día 21 de septiembre de 2018 aprobó el Anteproyecto de Ley por la que se reforma la legislación civil y procesal en materia de discapacidad que cambiará por completo el concepto y el modelo actual de la tutela.

Se le dará fin al modelo de representación o sustitución en la toma de decisiones por el modelo de apoyo en la toma de decisiones.

Es decir, se quiere proporcionar a la persona con discapacidad las medias de apoyo que de acuerdo con sus circunstancias concretas, pueda necesitar para el ejercicio de su capacidad jurídica y potenciar su autonomía y el derecho de autodeterminación.



Bizkaiko Tutoretza Erakundea
Instituto Tutelar de Bizkaia

Eredu berriaren ondorioak:

- la erabat murriztuko da ezgaitzeko erreminta edo baliabidea.
- Malgutasun nahiko izango duen legezko markoa sortzea epai judizialak pertsona ukituaren inguruabar eta beharrian indibidualetan laguntzeko neurri proportzionala eta egokia ezar dezan.
- Laguntzeko neurri horiek pertsonaren eskubide, borondate eta lehentasunarekiko begirunea bermatzeko eran egituratzea.

Azken finean, aurki BTEk errealitate juridiko berri horri egokitu beharra edukiko du eta barruan beste era batera egituratu eta antolatu beharko da sortuko diren beharrian berriei erantzun ahal izateko.

Inbertsioak

2019ko aurrekontuetan, inbertsioetan, ibilgetu materialak handitzeko (instalazio teknikoak eta beste ibilgetu material batzuk) 60.000 euroak edukiko ditugu

Consecuencias del nuevo modelo:

- Restringir casi en su totalidad el instrumento de la incapacidad.
- Crear un marco legal suficientemente flexible para que la sentencia judicial establezca la medida de apoyo proporcional y adecuada a las individuales circunstancias y necesidades de la persona afectada.
- Articular estas medidas de apoyo de forma que aseguren el respeto a los derechos, la voluntad y las preferencias de la persona.

En definitiva, en breve espacio de tiempo el ITB deberá de adecuarse a esa nueva realidad jurídica, estructurándose y organizándose internamente de manera diferente para dar respuesta a las nuevas necesidades que surjan.

Inversiones

En los presupuestos de 2019, en inversiones, tenemos 60.000 euros para incrementar el inmovilizado material (instalaciones técnicas y otro inmovilizado material).